

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GAZEOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### Gazeoko hilerriaren erabilera arautzen duen ordenantza

##### Gazeoko hilerriaren zerbitzuari eta haren administrazioari buruzko arautegia

**1. artikulua.** Gazeoko hilerria administrazio batzarrarena da, eta hari baino ez dagozkio hilerriaren administrazioa, zaintza eta zuzendaritza. Agintari judizialen eta osasun alorreko agintarien esku utziko dira, berriz, legez dagozkien esku hartzeak.

**2. artikulua.** Gazeoko Administrazio Batzarrari dagozkio hilerriaren administrazioa, zaintza eta zuzendaritza eta hilerriaren jabea eta erakunde publikoa den aldetik, bere gain hartu behar dituen bestelako zereginak.

**3. artikulua.** Norbanakoei dagokie: Hilerrian duintasunez ehorzteko eskubidea, bere erlijio eta ideologiarekin bat. Bai Gazeoko Kontzejuak bere eskumenez baliatuz ematen dituen xedapen guztiak, bai beste administrazio edo erakunde eskudunen batek hilotzen osasun betebeharrei buruz ematen dituztenak, errespetatu eta betetzea.

**4. artikulua.** Gazeoko hilerriaren kudeaketak honako hauek hartzen ditu barne: Hilerria kudeatzea eta zaintzea. Hilobien banaketa eta emakida. Hilerriaren elementu eta instalazio komunak zaindu eta garbitzeko lan eta zerbitzuak egitea, bai eta elementu horien funtzionamendua ere.

**5. artikulua.** Gazeoko Kontzejuak hilerriaren esparruan ordenari eutsiaraziko dio, eta bertako eginkizunek eskatzen duten begirunea exijituko du. Era berean, Gazeoko Administrazio Batzarrari dagokio: Exhumazio eta ehorzketen erregistroa. Horretarako, dagozkion erregistroak egingo dira administrazio batzarrak horretarako gaitutako liburuetan. Erregistroetan honako hauek jasoko dira:

Hilobia identifikatzeko datuak.

- Lurperatu beharreko pertsonaren izen-abizenak.
- Lurperatze data. Elementu eta instalazio komunak mantentzeko, zaintzeko eta garbitzeko zerbitzua. Hilerriarekin zerikusia duen beste edozein eginkizun.

**6. artikulua.** Norbanakoek garbitu eta mantenduko dituzte ehorzlekuak. Lan horiek instalazioak errespetatuz egingo dira; jardunak amaitutakoan, bai ehorzlekua bai ingurua aurretik zeuden moduan utzi beharko dira, eta sortutako hondakinak, gaiak eta erabilitako lanabesak kendu egin beharko dira handik. Partikularren batek bere ehorzlekua behar bezala zaintzen ez badu eta hondatuta baldin badago, eragindako eskubidearen titularrari egoera hori zuzentzeko eskatuko dio kontzejuak, eta, lanak ematen zaion epean gauzatzen ez baditu, administrazio batzarrak egin ahal izango ditu era subsidiarioan, partikularren kontura.

**7. artikulua.** Partikularrek beren kabuz egingo dituzte, edo kontratatu egingo dituzte, eremuan egin beharreko lanak, hala nola ehorzketa, hobitiek ateratzea, lekualdaketak eta antzekoak. Administrazio batzarraren ordezkari batek gainbegiratuko ditu lan horiek.

**8. artikulua.** Ikuskapen zorrotza egingo da jartzen diren apaingarriei eta inskripzioei dagokienez. Guztiz debekatuta dago tokiaren, sinesmen erlijiosoaren edo ideia politikoen aurkako edozein adierazpide erabiltzea. Hilerriak merezi duen errespetuarengatik, bertara doazen guztiek ahalik eta isilen ibili beharko dute, eta ezin izango dute moralaren edo edozein sinesmenen aurkako adierazpenik egin.

**9. artikulua.** Hilarriak jartzeko baimen berezia behar da. Hilarriak emakidadunarenak dira, eta haren kontura konpondu eta zainduko dira. Emakidaduna beharturik dago, tokiak merezi duen begirunez, hilarria zaintzera. Hilerrira doazen bisitarien diruzalekeria piztu dezakeen gauzarik jar ez dezaten gomendatzen zaie emakidadunei. Egon daitekeen edozein lapurretaren, hausturen edo ekintza bandalikoaren erantzukizunetik salbuetsirik dago administrazio batzarra.

#### EHORZTE ESKUBIDEAK

**10. artikulua.** Gazeoko Administrazio Batzarrak ehorzte eskubideak aitortu eta emango dizkie hiltzeko unean honako talde hauetakoren batean dauden pertsoneri: Herriko biztanle guztiei, gutxienez ere urtebete lehenagotik bertan erroldatuta badaude. Herriko biztanle izan eta bertan bizi izan direnei, nahiz eta bizilekua aldatu osasun, familia edo gizarte arrazoia direla eta.

Horma hilobiak: horma hilobien gaineko ehorzte eskubideak 50 urteko iraupena izango du gehienez, eta gorpuzkiak hobitik ateratzeko epea atzeratu egingo da ehorzketa egin zenetik 10 urte igaro ez badira.

Horma hilobietan gorpu bakarra ehortzi ahal izango da. Hala ere, horma hilobien erabilera betiko lagatzen bada, onuradunek, legezko epea igarotakoan, gorpuzkiak erraustu eta beste hilobi batera eraman ahal izango dituzte, edo beren kontura ordaindutako errauts kutxa batean sartu, horma hilobiaren hondoan jartzeko, horma hilobiaren edukierak horretarako aukera ematen duen bitartean.

Ehorzte eskubidearen epea amaitutzat eman eta administrazio batzarrari itzuliko zaio kasu hauetan:

- Emakida epeak igarotzeagatik edo mugaeguneratutako kuotak ez ordaintzeagatik, interesdunari hala eskatu ondoren.
- Ehorzte eskubidea arautegi honetan onartzen ez den beste norbaiti eskualdatzen zaionean.
- Hilobiak aurri egoeran daudenean.
- Titularrak berariaz uko egiten badio.

**11. artikulua.** Ehorzte eskubidea besterenezina da, hilerriko hilobien erabilera baino ez dakar, eta horien titulartasuna Gazeoko Kontzejuari dagokio.

#### BANAKAKO HILOBIAK

**12. artikulua.** Hilobietan egoteko denbora erregistroan jasota dagoen ehorzketa datatik aurrera hasiko da kontatzen. Ireki gabe denbora gehien daraman hilobian egingo da ehorzketa, ehorzketetarako espazio librean daudenen artetik, hilarria izan edo ez. Hilda dagoen ahaideren baten hilobian egin ahal izango da ehorzketa, baldin eta ehorzketetarako espazio librean badago eta familiak hala eskatzen badu, betiere azken ehorzketa egin zenetik gutxienez hamar urte igaro badira. Gazeoko Kontzejuak hobitik atera izanaren berri emanen die oinordekoei, aurkitu badaitezke. Oinordekoek nora eraman adierazi ezean, gorpuzkiak hezurtegi komunean utziko dira, berreskuratzeko markarik edo identifikaziorik gabe.

#### ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

**13. artikulua.** Auzotarren batzarrak zehatuko ditu arautegi honetako aginduen arau haustek.

#### HILERRIKOTASAK

Aldi baterako horma hilobiak: 350 euro.

#### OHAR KOMUNA

- Administrazio batzarraren esku geratuko dira hilobi edo horma hilobiak edozein arrazoi dela-eta hutsik edo libre geratzen direnean.
- Betierekoko horma hilobiegi dagokien tasa ordainduta lortzen den eskubidea ez da lursailaren jabetza fisikoa, espazio horietan gorpuzkiak kontserbatzeko eskubidea baizik.

AZKEN XEDAPENA

Erregelamendu hau behin betiko onetsi ondoren, ALHAOn argitaratu eta 15 egunera jarriko da indarrean.

Gazeo, 2020ko otsailaren 13a

*Lehendakaria*

*MIGUEL ÁNGEL BORGE PÉREZ*